



Iruran, 2015eko martxoaren 17an.

Kaixo lagunok:

**KORRIKA 19 , BADATOR !!!!!!!  
EUSKAHALDUN!**

Korrika 19 abiatzear da. Iruratik, martxoaren 21ean pasako da goizeko 7:30ak aldera. Irurako ikastolak beste herriko hainbat eragileekin batera, lekukoa hartuko du ibilbidearen zati batean. Gutun honen bidez, zuen seme-alabekin egun honetan bertan parte hartzera gonbidatu nahi zaituztegu.

Horretaz gain, martxoaren 23an **KORRIKA TXIKIA** antolatu dugu Irura eta Anoetako ikastolen artean, arratsaldeko **15:30ean** (Irurako ikastolako eraikin berritik bi herrien artean dagoen zubiraino). Bertan, mailaz maila gune desberdinetan, lekuko aldaketak egingo ditugu ibilbidea osatuaz. Ekintzari amaiera herriko plazan emango diogu; ikasleek lekukoan dagoen mezua irakurriko dute eta ondoren udalak merienda emango du.

Besterik gabe, bertan elkar ikusiko dugulakoan agur bero bat.

**EUSKARAZ BIZI TALDEA**